



HEZKUNTZA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Universidades
e Investigación
Dirección de Política y Coordinación
Universitaria

EBAZPENA, 2022ko azaroaren 17koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena; honen bidez, 2022-2023 ikasturterako unibertsitateko Ikasiker lankidetzaren beken deialdiaren ebazpen-proposamena ematen du.

Hezkuntza sailburuak, 2022ko ekainaren 21eko aginduaren bitartez (2022ko uztailaren 11ko EHAA), Ikasiker lankidetzaren beken deialdia egin zuen, 2022-2023 ikasturterako unibertsitate ikasleentzat.

Agindu horren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera eraturako hautaketa-batzordeak, Ikasiker lankidetzaren beken deialdiari dagokion ebazpen-proposamena eman du.

Horregatik, aipaturako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo.- Jakinarazi, 2022-2023 ikasturterako unibertsitateko Ikasiker lankidetzaren beken deialdiko eskatzaileei, beken deialdiko ebazpen proposamena. I. eranskinean zerrendatzen dira esleipen-proposamena duten eskaerak, II. eranskinean ukapen-proposamena duten eskaerak, III. eranskinean ordezkoen zerrenda proposamena osatzen duten eskaerak eta IV eranskinak eskaera guztiak biltzen dituen zerrenda bat du, ikerketa talde edo zentroaren arabera multzokatuak.

Bigarren.- 10 egun balioduneko epea ezartzea, eranskinetan zerrendatzen diren eskatzaileak beken ebazpen-proposamenari alegazioak aurkezteko edo prozeduran parte hartzeko atzera egiteko erabakia adierazteko.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 17a.

Miren Artaraz Miñón
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria